

Herrialde txostena: Alemania

basque
trade &
investment

2020ko uztaila

+ Alemaniako bulegoa
+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
2. BEGIRADA	5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	7
4.1. Abagune ekonomikoa	7
4.2. Balantza komertziala	7
4.3. Atzerriko inbertsioa	8
4.4. Enplegua	9
4.5. Perspektiba ekonomikoak	10
5. KANPO-MERKATARITZA	12
6. ALDEBIKO HARREMANAK	15
6.1. Euskadiren eta Alemaniaren arteko merkataritza	15
6.2. Euskadiren posizionamendua	19
6.3. Aldebiko inbertsioak	21
7. SEKTORE NAGUSIAK	22
7.1. Ekarpina BPGari	22
7.2. Merkatuko bolumenak	22
7.3. Negozio-aukerak	23
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	24
8.1. Nazioarteko kidetasunak	24
8.2. Merkataritza-akordioak	24
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	25
10. ONDORIOA	27
11. ERREFERENTZIAK	29



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Alemaniako BPGaren eta inflazioaren datuak	7
2. taula: Alemaniaranzko AIZ	9
3. taula: 2019ko langabezia-tasa Alemanian	10
4. taula: Alemaniako esportazioak 2019an	13
5. taula: Alemaniako inportazioak 2019an.....	14
6. taula: Euskadik 2019an Alemaniara esportatutako produktu garrantzitsuenak	15
7. taula: Euskadik 2019an Alemaniatik inportatutako produktu garrantzitsuenak	16
8. taula: Euskaditik Alemaniarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka	17
9. taula: Espainia eta Euskaditik Alemaniara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2016-2019 guztira, milaka €) ..	18
10. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren ranking-a hazkundearen arabera, 2002-2017	19
11. taula: sektore ekonomiko eta industrialak, 2019	22
12. taula: Merkatuko bolumenak sektoreka Alemanian, 2018	22

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Alemaniako Kanpo Merkataritza	8
2. grafikoa: Alemaniako BPGaren eta inflazioaren aurreikuspena	11
3. grafikoa: Alemaniako esportazioen jomuga garrantzitsuenak.....	12
4. grafikoa: Alemaniako inportazioen jatorri garrantzitsuenak	12
5. grafikoa: Euskadiren eta Alemaniaren arteko merkataritza (Iturria: Eustat)	15
6. grafikoa: Euskaditik Alemaniarako esportazioak Espainiako esportazioekin alderatuta	17
7. grafikoa: Inportazioen hazkundera 2012-2017	20



➔ 1. DATU OROKORRAK



GOBERNUA	BIZTANLERIA
<p>Estatu burua: Frank-Walter Steinmeier (Alemaniako Errepublikaren Federaleko presidentea)</p> <p>Gobernu burua: Angela Merkel (Kantziler Federala)</p> <p>Gobernu mota: Errepublikaren Federala</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Guztira: 83.149.300 pertsona - Hirietako biztanleria: % 75 - Hizkuntza ofiziala: alemana - Negoioetarako hizkuntza: alemana - Hiriburua: Berlin - Hiri garrantzitsuenak (biztanleria):^{1 2} <ul style="list-style-type: none"> ▪ Berlin: 3.644.826 biztanle ▪ Hanburgo: 1.841.179 biztanle ▪ Munich: 1.471.508 biztanle ▪ Kolonia: 1.085.664 biztanle ▪ Frankfurt am Main: 753.056 biztanle



EKONOMIA	Beste batzuk
<p>BPGa (2019, mila milioi euro): 3.863,34 €</p> <p>Per capita BPGa (PPP, 2019, euro): 46.564 €</p> <p>BPGaren hazkundea (2019): % 0,6</p> <p>Urteko inflazioa (2019): % 1,7</p> <p>Langileak: 45,3 milioi pertsona</p> <p>Enplegu-tasa (2018): % 83,1</p> <p>Langabezia-tasa (2019): % 5</p> <p>Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2019, milioi euro): 1.327.777</p> <p>Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2019, milioi euro): 1.104.264</p> <p>Balantza komertziala (2019, milioi euro): 223.514</p>	<p>Giza Garapenaren Indizea (GGI): 0,939</p> <p>I+G-n eginiko gastua BPGarekiko: % 3,13</p> <p>Internet erabiltzaileak: 72,9 milioi pertsona (biztanleriaren % 89,6)</p>

¹ Statista (2019ko urtarrila). Alemaniako hirietako biztanleak.

<https://de.statista.com/statistik/daten/studie/1353/umfrage/einwohnerzahlen-der-grossstaedte-deutschlands/>

² Statista (2014ko uztaila). Alemaniako hirietako biztanleria

<https://de.statista.com/statistik/daten/studie/152879/umfrage/in-staedten-lebende-bevoelkerung-in-deutschland-und-weltweit/>



2. BEGIRADA

Alemania Euskadiren bazkide komertzial garrantzitsuenetako bat da; oso harreman estua dago herrialde bietako enpresen artean, eta hala erakusten du Alemania azken urteotan euskal esportazioen lehen bi jomuga ohikoenen artean kokatu izanak eta Alemania izateak Euskadiko enpresen inportazioen jatorri nagusia. BasqueTrade & Investment agentziak egindako azterlan batean Euskadirentzat interesgarriak diren 48 herrialde aztertu eta sailkatu ditu, 31 eremutan banatuak. Hor ikusten da Alemania hirugarren herrialde interesgarriena dela Euskadirentzat. Azterlana egitean kontuan hartu dira merkatuaren tamaina, euskal klusterren interesa, BasqueTrade agentziaren programetara aurkeztutako ekintzak, euskal esportazioak eta Euskadin eginiko inbertsioen jatorria.

Orobat, puntuazio handia du Global Lehian programako ekintzetan, Basque Trade-ren proiektuetan eta euskal ezarpenetan, eta txikiagoa merkatu dinamismoan eta negozioetarako zailtasunean. Euskal enpresen sarpn-maila handia da konparatiboki.

Gure enpresentzat ere aukera-guneak diren sektore garrantzitsuenen artean aipagarria da Alemaniako BPGaren % 24,2 industriatik datorrela. Alemaniatik gehien inportatzen diren 4 ondasunak dira: ibilgailuak eta automoziozko osagaiak, makina-erreminta, produktu kimikoak eta datuen prozesamendurako makinak eta elektronika.

Industriaz gain, energia berriztagarrien eta azpiegituren sektoreak ere aukera-iturri dira euskal enpresarentzat. Alemanian sortzen den argindar guztiaren erdia inguru energia berriztagarriekin sortzen da, eta Gobernu Federala hasita dago jadanik neurriak hartzen lantegi nuklear guztiak 2022rako itxita egon daitezen. Azpiegiturei dagokienez, pandemia garaian ikusi da Alemaniak asko daukala hobetzeko informazio eta telekomunikazio azpiegiturretan. Gobernuak azkartu egingo du 5G sarearen ezarpena, baina horretarako irratidorre gehiago egin beharko ditu.

Azken urteotan, Euskadiko erakunde eta enpresek hainbat ekintza egin dituzte Alemanian, eta badirudi etorkizunean ere bide beretik jarraituko dutela. Euskal kluster askok ere kontaktu-sare zabala daukate Alemanian, eta maiz kolaboratzen dute hango erakundeekin. Orobat, euskal enpresa askok parte hartzen dute erakusle gisa Alemaniako hiri garrantzitsuenetan urtero edo bi urtez behin egiten diren nazioarteko azoketan.

Dokumentu hau 2020ko lehen hilabeteetan osatu da eta, beraz, baliteke COVID-19aren krisiak (eta Alemaniako zein munduko industrian eta merkatuan izango dituen ondorioek) aldaketak eragitea 2020rako eta aurreragorako eginiko aurreikuspen batzuetan. Aurreikusten da Alemaniako BPGa 2019koa baino % 6-7 txikiagoa izango dela.



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Alemaniako Errepublika Federalak 16 Estatu Federatuk osatzen dute. Federazioko Presidentea da Estatuko burua, bost urtez behin aukeratua Batzar Federalean eginiko bozketa baten bidez. 2017ko martxoaren 19tik, Frank-Walter Steinmeier (SPD alderdi sozialdemokrata) da Alemaniako estatu burua.

Bundestag edo Legebiltzar Federalean dago ordezkaturia Alemaniako herria, eta alemanek demokratikoki aukeratua da lau urterik behin. Bundestag-aren zeregin garrantzitsuenetako bat da Kantziler Federala, hots, Gobernu burua aukeratzea. Kasu honetan, 2005ean Angela Merkel (CDU alderdi kontserbadorea) izan zen aukeratua kargu horretarako, eta harrezkero beste 4 aldiz izan da aukeratua (azken hauteskundeak 2017an izan ziren). Gaur egun, Bundestag-ak 700dik gora diputatu ditu. Kantziler Federalak indar betearazlea du, eta Ministro Federalak Estatu buruak aukeratzen ditu Kantziler Federalak/Gobernu buruak eginiko gomendioak jarraituz.

Hauk dira Alemaniako alderdi politiko garrantzitsuenak: CDU (Batasun Kristau Demokrata, kontserbadoreak), CSU (Batasun Kristau Soziala, Bayern inguruko kontserbadoreak), SPD (Alderdi Sozialdemokrata, zentro ezkerra), FDP (Alderdi Liberal Demokratikoa, zentro eskuina), AFD (Alemaniarako Alternatiba, eskuin muturra) Ezkerra eta Berdeak / 90 Aliantza (ezker berdea). Historikoki, CDU eta SPD izan dira alderdi indartsuenak.

16 *Bundesländer* edo Estatu Federatuetako bakoitzak tokiko gobernuak eta legegaldiak izaten dituzte, eta antolamendua nahiko deszentralizaturia da. Botere betearazlea.

Alemaniako botere legegilea bi ganberatakoa da. Legebiltzarrak bi ganbera ditu: Batzar Federala (Ganbera Baxua), sufragio unibertsal bidez hautatua ordezkari-tza proportzional eta zuzena konbinatuz, lau urteko agintaldiarekin. Eta Kontseilu Federala (Ganbera Altua), herrialdeko 16 Estatu Federatuetako delegatuek osatua, kasu honetan ere lau urterako hautatzen dena. Botere Legegilea Gobernuarena eta Legebiltzarrarena da aldi berean. Alemaniarrek eskubide politiko ugari daukate.³

Migrazioa eragin handiko fenomeno da Alemanian: 4 biztanletik 1 migratzailea da edo arbaso migratzaileak ditu. Migratzaile gehienak herrialde hauetatik helduak dira (migratzaile kopuru handienetik txikienera): Turkia, Polonia, Errusia eta Kazakhstan.

Azken datuen arabera (2018), Alemaniako biztanleriaren % 15,5 inguru pobrezia arriskuan dago, eta joera horrek puntu bat egin du gora 2006tik (orduan % 14an zegoen). Garrantzitsua da ongi definitzea zer den pobrezia arriskuan egotea: hartan dagoela irizten zaio batez besteko diru-sarreraren % 60 baino gutxiago irabazten duenari.

³ Bundestag (2020ko urtarrila). Legebiltzar Federalaren Eraketa.
https://www.bundestag.de/parlament/plenum/sitzverteilung_19wp



4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

Alemaniak, Europako lehen ekonomiak, hazkunde sostengatua izan du azken urteetan (2017an % 2,5 eta 2018an % 1,5), baina 2019an hazkunde-prozesu hori moteldu egin zen nazioarteko gorabehera komertzialek eragindako inpaktuagatik, esportazioekiko menpekotasun handiagatik eta, besteak beste, automozio sektoreko ekoizpenaren murrizketagatik. Hala, kapital ondasunen eskaera ere murriztu egin zen eta BPGaren hazkundera % 0,6raino jaitsi zen, hau da, 2013tik erregistratutako maila baxuenera.

Halere, bazirudien ekonomia suspertzen ari zela barne kontsumoaren hazkundeagatik eta kapital sorkuntza gordinagatik (batez ere eraikuntzaren sektorean), % 1,2raino iritsi baitzen 2020an, baina COVID-19ak eragindako pandemiaren ostean, hazkunde negatiboa espero da urtearen amaierarako (% -7 ingurukoa).⁴

Estatuaren kontu publikoei dagokienez, Alemaniak bere BPGaren gaineko % 1,5eko aurrekontu-superabita izan zuen 2019an; hala, aurreikusten da 2020ko aurrekontuan ez duela zor berririk sortuko eta “schwarze Null” izeneko politikari eutsiko diola. Era berean, inflazioa 2018an baino % 0,4 beherago kokatu da, eta espero da are gehiago murriztuko dela, % 0,3 ingurura jaisteraino 2020aren amaieran. 2018an zor publikoa aurreko bi urteetako baino txikiagoa izan zen, hots, BPG osoaren gaineko % 61,90ekoa.⁵

Sozietateen gaineko zergaren tasa estandarra % 15ekoa da, eta BEZa % 19koa. Hauek dira politika ekonomikoaren helburu nagusiak: aurrekontu orekatuak, desnuklearizazioa, deskarbonizazioa, digitalizazioa eta ekonomia jasangarria.

1. taula: Alemaniako BPGaren eta inflazioaren datuak

	2017	2018	2019	2020 (estimazioa)
BPGa (mila milioi USD)	3.664,51	3.951,34	3.863,34	3.982,24
BPGa (urteko hazkunderaren %, prezio konstantea)	2,5	1,5	0,5	% -7
Per capita BPGa (USD)	44.334	47.662	46.564	47.992
Inflazio-tasa (%)	1,7	1,9	1,5	0,3

Iturria: Destatis (2020)

4.2. Balantza komertziala

Gorago aipatu bezala, kanpo merkataritzak eragin handia du Alemaniako ekonomian. Hain zuzen, kanpo merkataritzari zor zaio Alemaniako BPGaren % 87 inguru.

2019an Alemaniako kanpo merkataritzak goranzko joerari eutsi zion, nahiz eta moteldu egin zen agente komertzial garrantzitsuenen arteko tirabirek Europar Batasunean izandako eraginagatik. Esportazioak % 0,8 eta inportazioak % 1,4

⁴ Destatis (2020ko urtarrila). Alemaniako BPGaren aurreikuspena.

https://www.destatis.de/DE/Presse/Pressemitteilungen/2020/01/PD20_018_811.html

⁵ Destatis (2020). Herrialde profila: Alemania.

https://www.destatis.de/EN/Themes/Countries-Regions/International-Statistics/Country- Profiles/germany.pdf?_blob=publicationFile




hazi ziren 2018arekin alderatuta. Alemaniako kanpo merkataritzak 1.327,6 mila milioi euro erregistratu zituen esportazioetan, eta 1.104,1 mila milioi inportazioetan.⁶

Alemaniako kanpo merkataritzaren balantzak 223,6 mila milioi euroko superabita lortu zuen 2019an. Kopuru hori 2018koa baino txikiagoa da, balantza komertzialak 228,7 mila milioi euroko bolumena izan baitzuen urte hartan. Ordainketen balantzaren kontu korronteak 266,2 mila milioi euroko superabita izan zuen, 2018an baino handiagoa (2018an 246 mila milioi eurokoa izan zen).⁷

Azkenik, aipatzekoa da Alemaniaren eta Europar Batasuneko herrialde kideen arteko merkataritza-bolumena handiagoa dela hirugarren herrialdeekikoa baino.

1. grafikoa: Alemaniako Kanpo Merkataritza



Iturria: Agentziak egina Destatis-en datuekin (2020)

4.3. Atzerriko inbertsioa

Alemania herrialde erakargarrietako bat da atzerriko inbertsio zuzena bereganatzeko, ez soilik bere egonkortasun ekonomikoagatik, baizik eta baita ere Europa barruko merkatu handiena delako eta inbertitzaileentzako baldintza erakargarriak sortzen dituelako. Baina mundu mailako ekonomiaren atzeraldiak eta Euroguneko krisiak kalte egin diote fluxuari azken urteotan. 2018an atzerriko inbertsio zuzena 25,7 mila milioi eurokoa izan zen, hau da, 2017koa baino % 30 txikiagoa. Eta, neurri batean, hala izan zen BREXITak eragindako ziurgabetasungatik (“Germany Trade & Invest agentzia harremanetan jarri zen Britainia Handiko hainbat enpresarekin, eta ia % 50ek uste zuten BREXITak eragina izan zuela Alemanian inbertitzeko erabakian) eta automobilaren industriaren uzkurduragatik. Nolanahi ere, oro har esan liteke AIZren fluxuek goranzko joera izan dutela Alemanian 2010etik, eta % 40 inguru hazi zirela 2017ra arte. 2018an, AIZko 2.062 proiektu gauzatu ziren Alemanian guztira. Gainera, AIZ 30 mila milioi dolar inguru hazi zen 2019ko lehen seihilekoan, eta Bundesbank-en arabera, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeek gero eta gehiago inbertitzen dute Alemanian, bera delarik Txinako AIZko proiektuen munduko hartzaile handiena. Alemaniako AIZko transakzio guztien %

⁶ Destatis (2020ko ekaina). Alemaniako Inportazioak eta Esportazioak.

<https://www-genesis.destatis.de/genesis/online#astructure>

⁷ Destatis (2020ko otsaila). Alemaniako Balantza Komertziala.

https://www.destatis.de/DE/Presse/Pressemitteilungen/2020/02/PD20_039_51.html



19 Estatu Batuetatik dator, eta % 11 Asiatic. EB barruko igorle garrantzitsuenak dira Herbehereak, Luxenburgo, Suitza eta Frantzia.⁸

Hona hemen Alemania inbertsio-gune erakargarri egiten duten faktoreak: egonkortasun ekonomiko eta legala, azpiegitura onak, lan-indarraren kalifikazioa, ingeles-maila ona eta barne merkatu erakargarria. Aldiz, zerga-tasa altuak dira desabantaila handiena.

Hauek dira AIZko proiektu gehien jasotzen dituzten sektoreak: finantza zerbitzuak (% 22), ICT & Software (% 16) eta, azkenik, kontsumo ondasunen industria (% 9). Proiektu gehienak bulego komertzialak irekitzeko ekimenak dira (% 31), eta bigarren tokian daude ekoizpen lantegiak irekitzea helburu dutenak (% 17).⁹ Laburtuz, aurreikusten da erakarpin-indarrak handitzen jarraituko duela datozen urteetan, eta ikerketa eta fabrikazio sektoreetan inbertituko dela gehien.

Alemanian inbertitzen ari den enpresa garrantzitsuenetako bat Txinako Midea taldea da, zeinak Kuka konpainia erosi baitzuen 2016an. Gainera, Cheung Kong Property Holding konpainiak Alemaniako energia-zerbitzu hornitzailea erosi zuen 2017an; HNA talde txinatarrak Deutsche Bank-en partaidetzak eskuratu zituen, eta Creat Group taldeak Biotest AG erosi zuen.¹⁰

Negozioak egiteko erraztasunari dagokionez, 2020ko “Doing Business” txostenak 22. postuan jarri zuen Alemania aztertutako 190 herrialdeen artean, hau da, 2019an baino bi postu gorago (urte hartan 24. gelditu zen).

2. taula: Alemaniaranzko AIZ

Adierazlea	2016	2017	2018
AIZ (milioi USD)	23.500	36.931	25.706
AIZren stock-a (milioi USD)	794.527	957.444	939.033
Greenfield inbertsio kopurua	1.133	1.175	691
AIZren fluxua guztizko inbertsioarekiko (%)	1.4	n/a	n/a
AIZren stock-a (BPGaren %)	22.2	n/a	n/a

Iturria: Santander Trade (2019)

4.4. Enplegua

2019ko jarduera ekonomiko oparoari esker, 45 milioi langiletik gora daude Alemanian. Zehazkiago, 45,3 milioi pertsona zeuden lanean, hau da, 2018an baino 400.000 gehiago, eta % 0,9ko gorakada horren atzean dagoen arrazoi nagusia gizarte segurantzako kontribuzioak dira.¹¹

Bestalde, lan-indarrari atxikitako langile atzerritarren kopurua emandatu izanak konpentsatu egin du aurreko urteetan adinarekin eta migrazioarekin lotutako arrazoiaren efektu negatiboa. Sektore industrialeko enpleguak behera egin du hamar urtean lehen aldiz, baina, halere, zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetako tasak hazi egin ziren 2019an.¹²

⁸ GTAI (2019). Alemaniako AIZ.

<https://www.gtai.de/gtai-en/meta/press/fdi-reporting>

⁹ GTAI (2019ko ekaina). Business Location.

<https://www.gtai.de/gtai-en/invest/business-location-germany/fdi>

¹⁰ Deutschland (2018ko ekaina). Atzerriko Inbertsioa Alemanian.

<https://www.deutschland.de/es/topic/economia/inversion-extranjera-en-alemania-ventajas-y-desventajas>

¹¹ Destatis (2020ko urtarrila). Gizarte Segurantzako kontribuzioak.

https://www.destatis.de/EN/Press/2020/01/PE20_018_811.html



Hori dela eta, Alemaniako langabezia-tasa nahiko baxua izan da 2019an, hain zuzen, % 5koa.

3. taula: 2019ko langabezia-tasa Alemanian

ADIERAZLEA	2019
Enplegua guztira (milioi)	45,3
ENPLEGUA SEKTOREKA	
- Lehen sektorea (%)	1,26
- Industria sektorea (%)	26,88
- Zerbitzuen sektorea (%)	71,86
Langabezia-tasa (%)	5

Iturria: Statista (2020)

Enpleguak gora egin du eraikuntza eta zerbitzuen sektoreetan, aldiz, manufaktura sektoreko hazkundera murriztu egin da, gaur egun hazkunderik ez izateraino. Bestalde, nekazaritza, basogintza eta arrantza sektoreek 16.000 enplegu gutxiago izan dituzte 2019an.

4.5. Perspektiba ekonomikoak

Bundesbank-ek eginiko aurreikuspenen arabera, espero zen Alemaniako ekonomiak gaintitu egingo zuela oraintsura arte bizi izan duen moteltze-prozesua, 2020aren amaieran BPGaren % 0,6ko hazkundera izango zuela eta 2021erako % 1,7 ingurura iritsiko zela. Baina ezinezkoa izango da zifra horietara iristea COVID-19ak ekonomian eragindako ondorioengatik, eta aurreikusten da 2020an % -7ko hazkunde negatiboa erregistratuko dela. Hala ere, 2021erako aurreikuspenak hobeak dira, % 5,2 inguruko hazkundera espero baita.

Gainera, uste da Alemaniaren zerga eta moneta politika moldakorra lagungarri izango dela esportazioen hobekuntzarako behar den testuingurua sortzeko. Zentzu horretan, baliteke atzerriko eskaerak industriaren egoera hobetzea eta, horrela, barne kontsumoarekiko menpekotasuna konpentsatzea. Halere, badaude kanpoko arrisku batzuk Alemaniako industria sektorearen krisia luza dezaketanak.

Inflazioari dagokionez, aurreikuspenek diote momentuz murrizten jarraituko duela, energiaren prezioa ere beherantz doalako. Halere, 2019an % 1,4an finkatuta geratu ondoren, baliteke 2020an % 0,3ra jaistea eta 2021ean % 1,2ra. Horren arrazoi nagusia izango litzateke energiaren prezioaren igoera Alemaniako Gobernu Federalak hartutako neurri klimatikoaren ondorioz. Alde batera utzita energiaren eta nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak, espero da inflazioa berdin mantenduko dela 2022an, hots, % 1,9 inguruan.¹³

BPGarekiko zorrari dagokionez, aurreikuspenek diote Alemaniak % 1eko superabita izango duela datozen urteetan.

Bestalde, espero da lan-merkatuak emaitza onak ematen jarraituko duela, langabezia-tasa baxuak mantenduz (% 3,9 2020an eta % 3,5 2021ean).

¹² Destatis (2020ko otsaila). Enplegu-tasa Alemanian.


https://www.destatis.de/EN/Press/2020/02/PE20_049_13321.html

¹³ Bundesbank (2019ko abendua). Alemaniako ekonomiaren aurreikuspena, Bundesbank.

<https://www.bundesbank.de/en/press/press-releases/bundesbank-projections-german-economy-to-emerge-from-lull-818796>



2. grafikoa: Alemaniako BPGaren eta inflazioaren aurreikuspena




Iturria: Statista (2020)



5. KANPO-MERKATARITZA


3. grafikoa: Alemaniako esportazioen jomuga garrantzitsuenak



Iturria: Agentziak egina Destatis-en datuekin (2020)

4. grafikoa: Alemaniako inportazioen jatorri garrantzitsuenak

Iturria : Agentziak egina Destatis-en datuekin (2020)





Txinak Alemaniaren bazkide komertzial nagusia izaten jarraitzen du. Alemaniako Estatistika Bulego Federalak 2019an jasotako azken datuen arabera, 206 mila milioi euro inguruko merkatu-gaiak salerosi ziren Alemaniako Errepublika Federalaren eta Txinaren artean.

Alemaniako esportazio gehienak Estatu Batuetara bideratzen dira (119 mila milioi euro); Frantzia dago bigarren tokian (107 mila milioi euro) eta, hirugarrenik, Txina, 96 mila milioi euroko esportazioekin. Inportazioei dagokienez, Txina dago lehen postuan, 110 mila milioi inguruko ondasunak inportatzen direlarik. Herbehereak daude bigarren tokian, 99 mila milioi euroko inportazioekin.¹⁴

Alemania munduko hirugarren herrialde esportatzaile eta inportatzailetzat jotzen da, Txina eta Estatu Batuen atzetik.

Gainera, Bundesbank-ek emandako datuen arabera, Espainiaren bigarren bezeroa da Frantziaren atzetik, eta baita ere bere hornitzaile nagusia. Espainia 11. postuan dago Alemaniaren bezeroen artean, eta 13. postuan hornitzaileen artean.

4. taula: Alemaniako esportazioak 2019an

PRODUKTUA	MILAKA EURO
84 – Ekipo-ondasun mekanikoak	234.401.349
87 - Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	217.632.722
85 - Makinak, gailu eta material elektrikoak eta haien zatiak; soinua grabatu edo erreproduzitzeko gailuak, telebistan irudia grabatu edo erreproduzitzeko gailuak, eta gailu horien zatiak eta osagarriak	142.047.486
30 - Produktu farmazeutikoak	80.723.955
90 - Optikako, argazkigintza edo zinematografiako, neurketako eta kontrol edo zehaztasuneko tresna eta gailuak; tresna edo gailu mediko-kirurgikoak; tresna edo gailu horien zatiak eta osagarriak.	70.886.030
39 - Plastikoa eta bere manufakturak	60.681.032
88 - Hegazkinak, ibilgailu espazialak eta horien zatiak	37.799.799
27 - Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak; material bituminosoak; argizari mineralak	30.699.055
73 - Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko manufakturak	28.182.780
29 - Produktu kimiko organikoak	25.280.471
38 - Industria kimikoetako askotariko produktuak	23.457.208
72 - Galdaketa, burdina eta altzairua	22.907.556
48 - Papera eta kartoia; zelulosa pasta, paper edo kartoizko manufakturak	18.553.106
99 - Kode bereziak	16.535.174
94 - Altzariak; altzari mediko-kirurgikoak; oheko artikulua eta antzekoak; beste ezein arlotan adierazi edo jaso ez diren argiztatzeko gailuak; iragarkiak, letreroak, argiztatutako xafila adierazleak eta antzeko artikulua; eraikin aurrefabrikatuak	15.947.656

Iturria: Destatis (2020)

¹⁴ Destatis (2020ko maiatza). Alemaniaren bazkide komertzialak.

https://www.destatis.de/DE/Themen/Wirtschaft/Aussenhandel/Tabellen/rangfolge-handelspartner.pdf?__blob=publicationFile



5. taula: Alemaniako inportazioak 2019an

PRODUKTUA	MILAKA EURO
84 – Ekipo-ondasun mekanikoak	143.166.659
85 - Makinak, gailu eta material elektrikoak eta haien zatiak; soinua grabatu edo erreproduzitzeko gailuak, telebistan irudia grabatu edo erreproduzitzeko gailuak, eta gailu horien zatiak eta osagarriak	135.281.700
87 - Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	121.311.467
27 - Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak; material bituminosoak; argizari mineralak	97.708.705
30 - Produktu farmazeutikoak	53.287.275
39 - Plastikoa eta bere manufakturak	40.201.838
90 - Optikako, argazkigintza edo zinematografiako, neurketako eta kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak; tresna edo gailu mediko-kirurgikoak; tresna edo gailu horien zatiak eta osagarriak.	39.386.724
29 - Produktu kimiko organikoak	36.122.799
72 - Galdaketa, burdina, altzairua	24.667.426
73 - Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko manufakturak	21.395.776
94 - Altzariak; altzari mediko-kirurgikoak; oheko artikuluak eta antzekoak; beste ezein arlotan adierazi edo jaso ez diren argiztatzeko gailuak; iragarkiak, letreroak, argiztatutako xafla adierazleak eta antzeko artikuluak; eraikin aurrefabrikatuak	18.721.471
71 - Perla finak (naturalak edo hazkuntzakoak), harribitxiak edo erdibitxiak, metal preziatuak, metal preziatuzko txapak (plake) eta material horien manufakturak; bisuteria; txanponak	18.308.808
61 - Puntuzko arropak eta janzteko osagarriak	17.550.292
62 - Arropak eta janzteko osagarriak (puntuzkoak izan ezik)	17.284.206
76 - Aluminioa eta bere manufakturak	15.684.665

Iturria: Destatis (2020)

Behin aztertu ondoren Alemaniako gobernuak eginiko datu-baseak eta Alemaniak 2019an esportatu eta inportatu zituen produktu-multzoak, ondorioztatzen da esportazio eta inportazio garrantzitsuenak produktu industrial eta farmazeutikoenak direla.¹⁵

¹⁵ Destatis (2020ko otsaila). Alemaniako inportazioak.
<https://www-genesis.destatis.de/genesis/online#astructure>



6. ALDEBIKO HARREMANAK


6.1. Euskadiren eta Alemaniaren arteko merkataritza

Alemania Euskadiren bigarren bazkide komertziala da, Frantziarekin txandaka. 2019an, Euskadik 25,3 mila milioi euroko esportazioak erregistratu zituen, eta horietatik 3,8 mila milioi Alemaniara eginiko esportazioei zegozkien, hau da, esportazio guztien % 15,1. Inportazioei dagokienez, 3 mila milioi eurokoak izan ziren, hau da, 2019ko inportazio guztien % 15.

Jarraian datorren grafikoak erakusten duenez, 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteak kontuan hartuta, Euskadin apur bat hazi egin dira Alemaniarekiko esportazio eta inportazioak.¹⁶

Alemaniarekiko merkataritza-balantzak superabita izan du.

5. grafikoa: Euskadiren eta Alemaniaren arteko merkataritza (Iturria: Eustat)




Iturria: Destatis (2020)

Hauk dira Euskadiren eta Alemaniaren artean esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak, produktu-multzoka.

6. taula: Euskadik 2019an Alemaniara esportatutako produktu garrantzitsuenak

PRODUKTUA	MILAKA EURO
87 - Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	1.994.432
84 - makinak, gailu eta artefaktu mekanikoak; makina eta aparatu horien zatiak.	369.861
72 - Galdaketa, burdina eta altzairua	266.548
73 - Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturrak	264.896

¹⁶ Eustat (2020ko maiatza). Euskadiren eta Alemaniaren arteko merkataritza.
https://www.eustat.eus/banku/id_4111/indexLista.html



PRODUKTUA	MILAKA EURO
40 - Kautxua eta bere manufakturak	202.674
76 - Aluminioa eta bere manufakturak	127.390
82 - Metal arruntezko tresnak eta lanabesak, aitzogintzako artikuluak eta mahaiko tresnak; metal arruntezko artikulu horien zatiak	115.588
85 - Gailu eta material elektrikoak, eta haien zatiak	115.814
74 - Kobrea eta bere manufakturak	55.509
48 - Papera eta kartoia; zelulosa pasta, paper edo kartoizko manufakturak	35.960
83 - Metal arruntezko askotariko manufakturak	31.933
68 - Harri, sutegian moldatzen den igeltsu, zementu, amianto eta nikazko manufakturak	29.238
39 - Plastikoa eta bere manufakturak	22.868
22 - Edariak, likido alkoholodunak eta ozpina	18.969
18 - Kakaoa eta kakaozko prestatuak	18.405

Iturria: Eustat (2020)

7. taula: Euskadik 2019an Alemaniatik inportatutako produktu garrantzitsuenak

PRODUKTUA	MILAKA EURO
84 - makinak, gailu eta artefaktu mekanikoak; makina eta aparatu horien zatiak.	1.007.694
87 - Automobilak, traktoreak, euren zatiak eta osagarriak	496.905
85 - Gailu eta material elektrikoak, eta haien zatiak	305.914
72 - Galdaketa, burdina eta altzairua	206.954
39 - Plastikoa eta bere manufakturak	101.960
73 - Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak	100.531
74 - Kobrea eta bere manufakturak	78.296
90 - Optikako, argazkigintza edo zinematografiako, neurketako eta kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak; tresna edo gailu mediko-kirurgikoak; tresna edo gailu horien zatiak eta osagarriak.	76.029
83 - Metal arruntezko askotariko manufakturak	73.824
76 - Aluminioa eta bere manufakturak	58.560
82 - Tresnak eta lanabesak, aitzogintzako artikuluak eta mahaiko tresnak	57.175
40 - Kautxua eta bere manufakturak	56.911
86 - Burdinbide edo antzekoetarako ibilgailuak eta materialak, eta horien zatiak; komunikabideetarako seinalizazio-gailu mekanikoak eta elektromekanikoak	37.901
48 - Papera eta kartoia; zelulosa pasta, paper edo kartoizko manufakturak	29.963
38 - Industria kimikoetako askotariko produktuak	29.457


Iturria: Eustat (2020)

Grafiko honetan ikusten den bezala, Espainiatik Alemaniara egindako esportazioetan Euskadiko esportazioek Espainia osoko esportazioek baino pisu handiagoa dute. Kasu bietan ikusten da esportazioen proportzioa antzeko portzentajeetan mantendu dela azken urteetan.¹⁷

¹⁷ Datacomex (2020ko maiatza). Euskadiren esportazioak.
http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx



6. grafikoa: Euskaditik Alemaniarako esportazioak Espainiako esportazioekin alderatuta



Iturria: Datacomex, 2020.

Taula honetan ikus daiteke 2016 eta 2019 artean Euskadik % 12,2ko portzentajea duela Espainiatik Alemaniara eginiko guztizko esportazioetan. Nahiz eta automobilaren sektoreko osagaiak diren Euskaditik Alemaniara gehien esportatzen diren produktua, Estatu osoko esportazioak kontuan hartuta, Espainiatik egiten diren esportazio guztien % 17,6 ekipo ondasunak dira eta, ondorioz, horixe da Alemaniarako esportazio guztietan pisu gehien daukan produktua. Moltzo horien atzetik datoz lehengaiena (% 13,6) eta erdi-manufaktura (% 12,9). Nekazaritzako elikagaiak eta kontsumorako manufaktura dira Espainiako esportazioetan pisu gutxien dutenak.

8. taula: Euskaditik Alemaniarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka

	Guztira 2016-2019	2016	2017	2018	2019
Euskadiren pisua Alemaniarako esportazioetan sektoreka (%)	12,2	11,5	12,4	12,5	12,4
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	1,3	1,2	1,2	1,2	1,5
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	3,3	2,8	1,8	5	3,5
3 LEHENGAIK	13,6	10,9	11	15,8	16,2
4 ERDI-MANUFAKTURAK	12,9	12	13,7	13,8	12,3
5 EKIPO-ONDASUNAK	17,6	16,5	16,7	18,3	18,7
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	16,7	16	18	16,5	16,5
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	5,5	4,2	4,1	4,5	9,1
8 KONTSUMOKO MANUFAKTURAK	1,6	1,4	1,5	1,7	1,7
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	0,4	0,0	0,0	0,5	1,1

Iturria: Datacomex, 2020.



Espainiako eta Euskadiko esportazioen rankingak erakusten du Euskadi eta Espainiatik Alemaniara egiten diren esportazioak automozio eta ekipo-ondasunen multzoetakoak direla nagusiki.

9. taula: Espainia eta Euskaditik Alemaniara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2016-2019 guztira, milaka €)

	Espainia		EAE
Aukeratutako guztizkoa	121.622.742,69	Aukeratutako guztizkoa	14.831.187,77
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	35.031.760,33	6 AUTOMOBIL SEKTOREA	5.860.217,28
5 EKIPO-ONDASUNAK	27.880.438,93	5 EKIPO-ONDASUNAK	4.901.334,64
4 ERDI-MANUFAKTURAK	25.840.627,23	4 ERDI-MANUFAKTURAK	3.314.467,42
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	21.680.773,38	1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	278.347,47
8 KONTSUMOKO MANUFAKTURAK	6.867.857,86	3 LEHENGAIK	248.214,85
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	2.059.605,76	7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	113.002,86
3 LEHENGAIK	1.823.614,01	8 KONTSUMOKO MANUFAKTURAK	108.349,87
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	249.916,06	2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	6.309,50
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	188.149,14	9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	916,06

Iturria: Datacomex, 2020.

CIVEXen datu-basearen arabera, 727 dira Alemaniara esportatzen duten euskal enpresak. Zifra hori banakaturik ikusten da enpresa horietatik 334 Bizkaikoak direla, 281 Gipuzkoakoak eta 112 Arabakoak.



6.2. Euskadiren posizionamendua

Posizio indartsua du eta kuota altuak merkatu-gaien garraiorako ibilgailuetan, altzairuzko barra eta profiletan, makina-erremintan, lanabesetan eta autoetan. Hauek dira posizio indartsuena duten sektoreak: autoak, trenbideetako ibilgailuak, garabiak eta jasogailuak eta motorrak eta sorgailu elektrikoak. Potentzial handia duten sektoreak: burdin eta altzairuzko fabrikaturak, automozio zatiak eta osagaiak.

10. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren ranking-a hazkundearen arabera, 2002-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
87B Vehículos para transporte mercancías	6,85%	87B Vehículos para transporte mercancías	3,83%	2,13%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	5,62%	87A Vehículos automóviles	1,24%	0,94%
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	3,11%	82 Herramientas y útiles	-0,43%	0,50%
82 Herramientas y útiles	2,58%	86 Vehículos de vías férreas	0,17%	0,36%
87A Vehículos automóviles	2,11%	84D Grúas y aparatos elevacion	0,30%	0,32%
73A Tubos y accesorios	2,09%	72A Productos planos acero común	0,49%	0,30%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	1,78%	85A Motores y generadores eléctricos	0,33%	0,29%
40 Caucho y manufacturas	1,44%	76 Aluminio y manufacturas	0,24%	0,22%
87C Partes y accesorios	1,21%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	1,63%	0,21%
76 Aluminio y manufacturas	0,96%	83 Manufacturas metálicas	-0,20%	0,16%
86 Vehículos de vías férreas	0,88%	72E Otros de fundición hierro y acero	-0,19%	0,10%
85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,68%	6 a 14 Productos del reino vegetal	0,06%	0,05%
83 Manufacturas metálicas	0,67%	87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,01%	0,04%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,64%	88 Navegación aérea o espacial	0,06%	0,04%
72B Barras y perfiles acero común	0,61%	73B Depósitos, recipientes	-0,14%	0,03%
72A Productos planos acero común	0,54%	22 Bebidas	0,09%	0,02%
93 Armas y municiones	0,53%	85B Transformadores	-0,16%	0,02%
74 Cobre y sus manufacturas	0,47%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	-0,04%	0,02%
84D Grúas y aparatos elevacion	0,45%	41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	0,01%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,43%	39 Materias plásticas	-0,02%	0,00%
85A Motores y generadores eléctricos	0,40%	71 Joyería y bisutería	0,01%	0,00%
22 Bebidas	0,31%	97 XXI Objetos de arte	-0,01%	0,00%
84F Otra maquinaria mecánica	0,25%	89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	0,00%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,23%	25-27 Productos minerales	0,00%	0,00%
73B Depósitos, recipientes	0,19%	1 a 5 Productos del reino animal	0,00%	0,00%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,15%	94-96 Muebles, juguetes, otras	-0,04%	0,00%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,13%	44-46 Madera y sus manufacturas	-0,02%	0,00%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,13%	28-38 Productos químicos	-0,01%	-0,01%
84B Motores	0,13%	85D Alumbrado	-0,01%	-0,02%
85B Transformadores	0,10%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	-0,05%	-0,02%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,10%	84B Motores	-0,29%	-0,03%
87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,09%	16-24 (-22) Productos alimenticios	-0,04%	-0,03%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,07%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	-0,10%	-0,03%
88 Navegación aérea o espacial	0,06%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	-0,07%	-0,04%
39 Materias plásticas	0,06%	93 Armas y municiones	-0,68%	-0,05%
84A Calderas y turbinas	0,06%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	-2,04%	-0,06%
84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	0,05%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	-0,08%	-0,06%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,04%	84F Otra maquinaria mecánica	-0,08%	-0,06%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,03%	84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	-0,17%	-0,07%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,03%	84A Calderas y turbinas	-0,03%	-0,09%
28-38 Productos químicos	0,03%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,02%	-0,11%
41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,02%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	-0,05%	-0,12%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,01%	99 No clasificados	0,00%	-0,12%
1 a 5 Productos del reino animal	0,01%	74 Cobre y sus manufacturas	-0,53%	-0,19%
71 Joyería y bisutería	0,01%	87C Partes y accesorios	-0,48%	-0,25%
85D Alumbrado	0,00%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	-0,14%	-0,44%
25-27 Productos minerales	0,00%	40 Caucho y manufacturas	-0,53%	-0,54%
15 Grasas y aceites	0,00%	73A Tubos y accesorios	-1,36%	-0,91%
89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	-1,23%	-0,95%
99 No clasificados	0,00%	15 Grasas y aceites	-0,02%	-1,85%
97 XXI Objetos de arte	0,00%	85C Baterías, acumuladores, electroimanes	-0,53%	-3,36%

Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

Aurreko taulan ikusten den bezala, 2017an euskal kuotaren buruan Alemaniako merkatu-gaien garraiorako ibilgailuen sektorea dago (% 6,85), eta atzetik datoz metalaren sektorea eta altzairuzko barra eta profilen sektorea, makina-




erreminta eta lanabesak. Rankingeko bosgarren postuan autoen sektorea dago, Alemaniako merkatu kuotaren % 2,11rekin.

Bestalde, ibilgailuen sektorean (merkatu-gaien garraioa, autoak eta trenbideak) eta lanabesen, garabien eta jasogailuen sektoreetan hazi da gehien euskal kuota azken bost urteetan.

Hona hemen merkatuaren potentzialaren eta euskal posizionamenduaren matrizea hainbat sektoretan:

7. grafikoa: Inportazioen hazkundea 2012-2017



16-24 (-22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóviles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barra y perfiles acero común	84D	Grúas y aparatos elevación	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barra y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		



Matrize horretan ikusten da Euskadiren indarra automozio, trenbideetako ibilgailu, garabi eta jasogailu eta motor eta sorgailu elektrikoak bezalako sektoreetan, zeintzuetan Alemaniaren inportazioek hazkunde handiena izan duten azken bost urteetan, eta halaber ikusten da inportazio horietan EAEk daukan kuota. Inportazioen hazkunderan aipagarriak dira burdin eta altzairuzko beste manufaktura batzuen sektorea eta automoziozko zati eta osagaien sektorea, zeintzuetan Euskadiren kuota murriztu egin baita iragan bost urtean.

6.3. Aldebiko inbertsioak

BasqueTrade & Investment agentziak Alemanian duen bulegoak 70 euskal ezarpen inguru dauzka identifikatuta, eta horietako gehienak ezarpen tekniko-komertzialak dira (% 75). Badaude enpresa gutxi batzuk hainbat ekoizpen-lantegi dauzkatenak Alemanian, eta baita bulego komertzialak ere. Estatu Federatu hauek dira euskal ezarpen gehien dituztenak: Nordrhein-Westfalen, Baden-Württemberg eta Bayern. Ezarpen gehienak automozio, makina-erreminta eta metalaren sektoreetakoak dira.

Bestalde, Euskadin Alemaniako enpresen 75 ezarpen inguru daude: 35 Bizkaian, 25 Gipuzkoan eta 15 Araban. Ezarpen horiek sektore desberdinetakoak dira, baina aipagarrienak dira makina-erreminta, automozioa, energia sektorea eta logistika.



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

Hona hemen Alemaniako 2019ko BPGaren datuak sektoreka banatuta:¹⁸

11. taula: sektore ekonomiko eta industrialak, 2019

Sektore ekonomiko eta industrialak, 2019	(BPGaren %)	(milioi euro)
Zerbitzu publikoak, hezkuntza eta osasuna	% 18,8	645,96
Merkataritza, garraioa, hotelak eta jatetxeak	% 16,2	556,63
Zerbitzu korporatiboen hornitzaileak	% 11,5	395,13
Lurrak eta etxebizitza	% 10,6	364,21
Informazioa eta komunikazioa	% 4,6	158,05
Zerbitzuen beste hornitzaile batzuk	% 3,8	130,56
Finantza zerbitzuen hornitzaileak eta aseguruak	% 3,9	134,00
Manufaktura industria, eraikuntza izan ezik	% 24,2	831,50
Eraikuntzaren industria	% 5,6	192,41
Zerbitzu-guneak	% 0,8	27,48
Barne Produktu Gordina	% 100,0	3.435,99

Iturria: Destatis (2020)

Deigarria badirudi ere, manufaktura industria Alemaniako BPGaren % 24,2 da, hau da, Euskadin dugunaren antzeko portzentajea. Gure kasuan, % 24-25 artekoa izaten da.¹⁹

7.2. Merkatuko bolumenak

Hona hemen sektore garrantzitsuenetako batzuk eta euren bolumenak:

12. taula: Merkatuko bolumenak sektoreka Alemanian, 2018

Kategoria	2018 (Milioi €)
Negoioetarako zerbitzuak	599.798
Motordun ibilgailuak eta ordezeko piezak	431.927
Argindarra	121.285
Argindarraren banaketa eta kontrolerako gailuak	58.966
Petrolio birfinduzko produktuak	56.137
Estoldak eta saneamendua	53.367
Aire girotu, bilketa eta beste helburu orokor batzuetarako makina industrialak	50.665
Hegazkinak eta espazio-ontziak	48.964

¹⁸ Destatis (2020ko urtarrila). Alemaniako BPGa sektoreka.

https://www.destatis.de/DE/Presse/Pressekonferenzen/2020/BIP2019/pressebrochure-bip.pdf?__blob=publicationFile

¹⁹ Statista (2020ko urtarrila). Alemaniako sektoreen merkatu-bolumenak.

<https://de.statista.com/statistik/daten/studie/252123/umfrage/anteil-der-wirtschaftszweige-an-der-bruttowertschoepfung-in-deutschland/>



Kategoria	2018 (Milioi €)
Kautxu, plastiko eta paper industrietarako makinak eta helburu berezietarako beste makina batzuk	45.405
Tresna mekanikoak	39.595
Punpak, konpresoreak, iturriak eta balbulak	34.463
Neurtzeko, nabigatzeko eta probatzeko gailuak	33.795
Motor eta ibilgailuentzako ekipo elektrikoa	24.583
Jasotzeko eta manipulatzeko ekipoak	22.457
Kojineteak, engranajeak eta elementu eroaleak	21.147
Mahaiko tresnak, eskuko tresnak eta burdinazko tresnak oro har	19.913
Osagai elektronikoak, balbulak eta hodiak	19.465
Eraikuntza, meatzaritza eta harrobietarako makinak	17.858
Gas fabrikazioa eta banaketa	17.214
Nekazaritza eta basogintzarako makinak	16.384
Motor elektrikoak, sorgailuak eta transformadoreak	14.577
Birziklapena	14.142
Etxetresnak	12.274

Iturria: Destatis (2020)

7.3. Negozio-aukerak

Alemaniano negozio-aukerei dagokienez, hauek dira datozen urteetan nabarmenduko diren sektoreak: mugikortasun elektrikoa, energia eolikoa, bateria elektrikoak eta burdinbideen sektorea. Alemania apustu sendoa egiten ari da mugikortasun elektrikoaren alde, eragile garrantzitsua izan dadin etorkizun hurbilean. Horren erakusgarri, gobernuak helburutzat hartu du auto elektrikoentzako milioi bat karga-puntu instalatzea 2030erako. Horrekin batera, *Car sharing* plataforma berriak sortzen eta inplementatzen ari da, hiritarrek aukera izan dezaten auto elektriko bat partekatzeko ekosistema berdeago batean. Garrantzitsua da aipatzea Alemaniak autobus elektrikoetarako duen finantzaketa 300 milioi euro handiagoa dela aurtan.

Hona hemen BasqueTrade-ren zaintza-sistemak identifikatutako negozio-aukerei buruzko azken albiste batzuk. Informazio gehiagorako: <https://basquetrade.spri.eus/>.

PSA taldeak iragarri du *Joint-venture* berri bat sortu dela ibilgailu elektrikoak ekoitziko dituzten bi lantegi erraldoi eraikitzeko Europan, eta horietako bat Alemanian egongo da. Lantegi horiek ibilgailu elektrikoentzako bateriak ekoitziko dituzte, eta aurreikusten da martxan egongo direla 2030erako.

Gorago aipatutakoaz gain, Alemaniak ehunka milioi euro inbertitu ditu hidrogeno berdean, aukera handiak dakartzalako energia-eredua aldatzeko, klima babesteko eta lanpostu asko sortzeko.

Era berean, Alemaniako gobernuak 86 mila milioi euroko programa bat sinatu du trenbideen arloan, trenbide-sare nazionalaren mantenimendu eta berritze-lanetarako. Hala, 10 urteko epean, 2.000tik gora km trenbide, 2.000 zubi eta 2.000 bidegurutze konponduko dira. Gobernua sinetsirik dago proiektu honi esker burdinbide-sare sendo eta fidagarriagoa lortuko duela. Aipatzekoa da Alemaniak eta Txekiar Errepublikak akordio bat sinatu dutela trenbide-lotura berri bat sortzeko Praga eta Dresden hirien artean, eta hartara, bien arteko konexioa hobetzeko.



8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidetasunak

Alemaniko kanpo politikaren zutabe garrantzitsuenak Europaren integrazioa eta ikuspegi ekonomikoa dira, bere helburua baita lotura komertzialak ezartzeko behar diren baldintzak hobetzea.

Alemaniko kanpo ekintza mendebaldera bideratuta egon da nagusiki (Europa eta Estatu Batuak) eta aktore garrantzitsua bilakatu da, bai European eta bai nazioartean.

Alemania EBko kide da, Europako potentzia ekonomiko handiena da, eta kide guztien arteko lankidetzaz bultzatzen du, batik bat, Frantziarekiko. EBtik kanpo, Nazio Batuak, NATO, G7 eta G20 taldeetako kide ere bada.²⁰

8.2. Merkataritza-akordioak

Gorago azaldutako nazioarteko lankidetzaz gain, Alemaniak aldebiko harreman eta merkataritza-akordio ugari ditu.

- Estatu Batuak da Alemaniako ondasun inportatzaile nagusia, eta horregatik dute harreman estua.
- Aldebiko akordio gehiago ere baditu Afrika eta Asiako hainbat herrialderekin, Alemaniako industriarentzat funtsezkoak diren baliabide naturalak ustiatzeko.
- Ezarpen bikoitzeko 100 akordio inguru ditu, baita Espainiarekin ere.
- 4.0 Industriaren esparruan, hainbat akordio komertzial itxi ditu Frantzia, Txina, Estatu Batuak eta Japoniarekin.²¹

²⁰ Auswärtiges (2017ko maiatza). Alemaniaren kidetasunak.

<https://www.auswaertiges-amt.de/de/aussenpolitik/regionaleschwerpunkte/usa/transatlantischebez-allg-node>

²¹ Auswärtiges (2019ko urria). Akordio komertzialak.

<https://www.auswaertiges-amt.de/en/aussenpolitik/themen/policy-principles/229790>



9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

COFACEren balorazioa:

HERRIALDEA	HERRIALDEAREN ARRISKUA	NEGOZIOETARAKO GIROA
ALEMANIA	A2	A1

Arrisku orokorra kalkulatzeko, enpresa-faktore espezifikoak eta enpresaren herrialdeari dagozkion faktoreak konbinatzen dira. Análisi horrek **zazpi mailako sailkapen** bat erabiltzen du, **arrisku txikienetik handienara doana: A1, A2, A3, A4, B, C eta D.**

INDAR-GUNEA	AHULUNEA
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarri industrial indartsua (BPGaren % 25, 2018) • Langabezia estruktural baxua; ongi garatutako ikaskuntza-sistema • Famili ETE esportatzaileen garrantzia (klase ertaina) • Etxe pribatuen zorra nahiko txikia da (errentaren % 95 erabil dezakete, 2018) • Hanburgo, Bremerhaven eta Kiel hirietako portuen garrantzia • Ordezkaritasuna sustatzeko sistema instituzionala 	<ul style="list-style-type: none"> • Immigrazioa gorabehera, biztanleria aktiboa murriztu egin da 2020tik aurrera • Bankuen errentagarritasuna baxua da • Automozio industria eta industria mekanikoa besteen gainetik nabarmentzen dira, batez ere esportazioetan (BPGaren % 32 2018an) • Gaitasun mugek, inbertsio txikiegiak (batez ere Internetarako irisgarritasunean) eta arrisku kapitalak produktibitatearen irabaziak mugatzen dituzte • Ekialdeko eskualdeak atzean daude oraindik, nahiz eta etena ixten ari den pixkanaka • Alemaniak alderdi politikoen sistema zatikatua du eta alemanak ez daude ohituta horretara

Hona hemen COFACEren ohar garrantzitsuenak:²²

Kontsumo pribatu indartsuak atzeraldi industrialaren ondorioak konpentsatzen ditu

Ekoizpenaren urteko zifrak negatiboak izan dira ia beti 2018ko abuztutik hasi eta 2019aren amaierara arte, eta manufaktura sektoreko eskaera berriei eta errendimendu adierazleei erreparatzen badiegu, ez dirudi 2020an susperraldi handirik izango denik. Hainbat dira horren atzean dauden arrazoiak, hala nola, Estatu Batuen eta Txinaren arteko gatazka komertziala, BREXITa edota Koronabirusaren krisi globala, zeintzuek ziurgabetasuna areagotzen duten eta eragina izan duten inbertitzeko orduan eta enpresa esportatzaileen jardunean. Alemaniako automobil sektoreak borrokan jarraitzen du gasolioaren eskandaluaren ondorioekin eta gidatze teknologia berrietaranzko eraldaketa teknikoarekin. Horrek ondorioak izan ditu hornikuntza-kateko industria guztietan, hala nola, industria metalurgikoan, makinarian eta industria kimikoan. Halere, kontsumo pribatuak indartsu izaten jarraitzen du (BPGaren % 53), lan-merkatua oso doituta dago, soldatek gora egin dute eta interes-tasak oso baxuak dira, EBZren depositu-tasa negatiboa delako. Horrez gain, gastu publikoa moderatua da (BPGaren % 14), eta eraikuntzaren sektoreak bizirik darrai (BPGaren % 11); hala, kontsumo pribatuak oreka ematen dio Alemaniako ekonomiari. Ziurgabetasuna eragin duten faktoreak ez dira desagertuko. Oro har, Alemaniako ekonomiak *status quo* berri eta ziurgabe honetara ohitu beharko du. Beraz, espero da jarduera komertziala zertxobait suspertuko dela. Kontsumo pribatuak izan behar luke Alemaniako ekonomiaren zutabe nagusia, betiere sektore industrialaren ahultasuna ez bada iristen zerbitzuen sektorera

²² Coface (2020ko ekaina). Alemaniaren herrialde-arriskua.
<https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Germany>



(enpresengandik hurbil dauden zerbitzu batzuek egoeraren ondorioak jasan zituzten 2019aren bigarren erdian) eta langabeziak gaur egungo mailari eusten badio. BPGaren hazkundera egonkorra izan behar luke hemendik aurrera ere.

Superabit publikoak eta kanpoko superabitak murrizten ari dira

Gobernuak 39.800 milioi euroko errekorreko inbertsioak egin nahi ditu 2020an (BPGaren % 1,2). Inbertsio horiek batik bat bideratuko dira hezkuntzara, lignitoaren meatzaritza erretiratzera (aldaketa estrukturala), ingurumenaren babesera eta defentsara. Era berean, zerga bidez eskuratutako diru-sarrerak apalagoak izango dira eta superabit publikoa murriztu egingo da. Gauza bera gertatuko da kontu korrontearen superabitarekin, espero baita are gehiago murriztuko dela, superabit komertziala bezala (BPGaren % 6). Zerbitzuen balantzak defizita izaten jarraituko du, batik bat, turista alemanek eginiko gastuengatik; aldiz, diru-sarreraren balantzak soberakina izaten jarraituko du, atzerriko inbertsioak indartsu hazten ari direlako, Alemaniako interes-tasa baxuen ondorioz.

Koalizio Handia presiopean

2017ko legebiltzarrerako hauteskunderen ostean, porrot egin zuen kontserbadoreen (CDU-CSU), berdeen eta liberalen (FDP) arteko koaliziorako negoziaketak; beraz, azkenean, SPD alderdiaren protesta ugariak bultzaturik, kontserbadoreek eta sozialdemokratek (SPD) hirugarren Koalizio Handia osatu zuten, Angela Merkel (CDU) kantzilerraren lidergoan. SPDk epel jokatzeko jarraitu zuen Koalizio barruan, eta alderdiko bi liderrek euren kargua utzi zuten 2018aren hasieran. SPDko lider berriak, Norbert Walter-Borjans eta Saskia Esken, biak ezkerreko sozialdemokratak, Koalizio Handia uztearen aldekoak dira, baina erabaki hori SPDren legebiltzarreko taldeak onartu behar du Bundestag-ean. Hori gertatuko balitz, Merkel-ek gutxiengoan eraiki lezake bere gobernu 2021eko udazkenean agintaldia bukatu arte, berriz saia liteke CDU-CSU koalizioarekin, Berdeekin eta FDPekin edo hauteskundera dei ditzake. Inkestek diotenez, berriz hauteskundera egingo balira, alderdi biko koalizioek ez lukete behar beste boto lortuko –ezta egun indarrean dagoenak ere-; hiru alderdik osatutako koalizio batek soilik izango luke nahikoa babes.



10. ONDORIOA

Alemaniak, Europako lehen ekonomiak eta munduko ekonomia industrializatuenetakoak (2019ko BPGaren arabera laugarrena), BPGaren % 0,6ko hazkundera izan zuen 2019an, azken sei urteetako datu txarrena.

Ekonomia hazi egin zen berriz 2019an, baina dinamismo txikiagoarekin. Arrazoi garrantzitsuenak izan ziren hazkunde global eskasa, Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertziala eta BREXITa, eta, azkenik, automobil industriaren zailtasunak. Esportazioak, beti oso garrantzitsuak izan direnak Alemaniako ekonomiarentzat, % 0,9 bakarrik hazi ziren 2018arekin alderatuta, eta inportazioak, berriz, % 1,9. Barne-kontsumoak atzeralditik salbatu zuen ekonomia 2019an.

Alemania aspalditik da bazkide komertzial oso garrantzitsua Euskadirentzat, inportazioen jatorri garrantzitsua delako, eta esportazioen jomuga garrantzitsua ere bai, Frantziarekin batera.

Alemaniko BPGaren % 24,2 industriatik dator, eta % 69,3 zerbitzuetatik. Alemaniatik gehien esportatzen diren 4 ondasunak dira ibilgailuak eta automozioiko osagaiak, makina-erreminta, produktu kimikoak eta datuen prozesamendurako makinak eta elektronika. Era berean, horiexek dira Alemaniak gehien inportatzen dituen 4 ondasunak. Esportazio bolumenak inportazioarenak baino handiagoak dira, eta beti lortzen da superabita balantza horretan.

Euskal enpresa asko daude Alemaniako merkatuan; batzuek ezarpen propioak dituzte, eta beste batzuek agente komertzialak dituzte merkatuan. Ekoizpen ezarpenak gutxi dira, eta enpresa askok nahiago izaten dute euren profil tekniko-komertzialak eramatea Alemaniara.

Gorago aipatutako sektoreez gain, badaude aukera interesgarriak energia berriztagarrien sektorean eta azpiegituretan.

Energia berriztagarriei dagokienez, Fraunhofer Institutuak 2020ko ekainean eginiko txosten baten arabera, Alemanian sortutako argindarraren erdia baino gehiago energia berriztagarrietatik eratorri da (nagusiki energia eolikotik eta eguzki energiatik) laugarren hilabetez jarraian eta errekorreko kopuruak erdietsi ditu; aldiz, ikatzarekin funtzionatzen duten zentral elektrikoak erdira murriztu ziren maiatzean. Murrizketa horren arrazoi garrantzitsuenetako bat izan da industriako ekoizpenaren geldialdia eta energia kontsumoaren murrizketa bortitza.²³ Aurreikuspenen arabera, energia berriztagarriek guztizko energiaren % 50 gaindituko dute lehenbizikoz. Gobernu hainbat neurri ekonomiko hartzen ari da oraindik martxan dauden planta nuklearrak 2022an ixteko; ikatzarekin funtzionatzen dutenek, aldiz, 2038ra arte jarraituko dute. Helburua da ordurako energia premia hori energia berriztagarrien bidez asetzea.

Azpiegiturei erreparatuz gero, batetik azpimarrazekoa da pandemian zehar inoiz baino argiago gelditu dela zein beharrezkoa den Alemaniako informazio eta telekomunikazio azpiegitura hobetzea. Gobernuak azkartu egingo du 5G sarearen ezarpena, baina horretarako irati-dorre gehiago egin beharko ditu.

Bestalde, Deutsche Bahn-ek eta Gobernu federalak urtearen hasieran jakinarazi zuten 12,2 mila milioi euroko birgaitze-planak²⁴ eta eraikuntza berriak egingo direla hemendik eta 2030era bitartean. Hainbat trenbide eta etengailu ordezkatu dira, eta 160 zubi inguru modernizatuko dira. Kopuru horretatik 2,2 mila milioi bideratuko dira sarea zabaldu eta eraikuntza berriak giterra.

²³ Spiegel Wirtschaft (2020ko apirilak 1). Energia kontsumoa 2020an

<https://www.spiegel.de/wirtschaft/service/energiewende-oekostromanteil-steigt-auf-52-prozent-a-6276e542-7175-4196-8844-954be6bafdf1>

²⁴ Tagesschau (2020ko urtarrilak 29). Deutsche Bahn-en inbertsio planak

<https://www.tagesschau.de/wirtschaft/bahn-infrastruktur-101.html>



Gainera, aipatzekoa da Alemaniako autobideak maiz kolapsatzen direla, joan-etorri askoren erdian dagoen herrialdea delako, eta errepide asko hondatuta daude. Arazo hori konpontzeko, Gobernuak errepideak hobetzeko plan ambiziotsu bat dauka martxan 2019tik²⁵, 20 mila milioi euro inbertituko dituelarik datozen hamar urteetan.

Dokumentu hau Covid-19aren pandemian zehar egin da, eta krisi horrek gogor kolpatu du Alemania sozialki eta ekonomikoki, munduko beste herrialde guztiak bezala. Alemaniak azkenaldiko historiako datu ekonomiko okerrenak izan ditu, aise gaintu direlarik 2009ko krisiko kopuruak. 7 milioi aleman baino gehiagok eskatu zituzten *Kurzarbeit* laguntzak (Espainiako ABEEen antzekoak) maiatzean, eta aurreikuspenek diote Alemaniako BPGa % 6-8 bitartean murriztu daitekeela. 2021erako zifrak apur bat itxaropentsuagoak dira, itxuraz, BPGa 2020koa baino % 5 handiagoa izango baita.²⁶ IFO institutuaren arabera, negozioetarako giroa ere nabarmen hobetu da azken asteotan, eta badirudi are gehiago hobetuko dela urtearen bigarren seihilekoan.

²⁵ Frankfurter Allgemeine Zeitung (2019ko urriak 24). Azpiegitura beharrak
<https://www.faz.net/aktuell/wirtschaft/konjunktur/infrastruktur-in-deutschland-iw-fordert-mehr-investitionen-16447528.html>

²⁶ Tagesschau (2020ko ekainak 25). Alemaniako BPGaren aurreikuspena 2020-2021
<https://www.tagesschau.de/wirtschaft/konjunkturprognose114.html>



11. ERREFERENTZIAK

- BUNDESBANK (2020ko martxoa): <https://tools.rki.de/PLZTool>
- CIVEX (2020ko martxoa): <http://www.industria.ejgv.euskadi.net/r44-civex/es/x76aAppWar/index/home>
- COFACE (2020ko apirila): <https://www.coface.com/>
- DATACOMEX (2020ko martxoa): <http://datacomex.comercio.es/>
- DESTATIS (2020ko maiatza): <https://www.destatis.de/DE/Home/inhalt.html>
- DEUTSCHLAND AUSWÄRTIGES AMT (2020ko apirila): <https://www.auswaertiges-amt.de/de>
- EUSTAT (2020ko ekaina): <https://www.eustat.eus/indice.html>
- GERMANY TRADE & INVEST – GTAI (2020ko apirila): <https://www.gtai.de/gtai-de>
- SANTANDER TRADE (2020ko martxoa): <https://santandertrade.com/es>
- STATISTA (2020ko maiatza): <https://de.statista.com/>

© Agencia Vasca de Internacionalización
BasqueTrade and Investment S.A.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT